



11. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

Alarma Egoeraren 11. eguna. 2020ko martxoaren 26, osteguna.

Asteazkena hilak 25eko Kudeaketa / Ekintzak

BALIABIDE INSTITUZIONALAK

Harrera Sareak buletina idazteaz arduratzen garenok, **biziki sentitzen dugu, ia egunero, etxerik gabeko pertsonentzako baliabide nahikorik ez egotea eta administrazioek baliabide hauek emateko duten geldotasuna**, konfinamendu-egunak igarotzen diren bitartean. Sentitzen dugu, lehenik eta behin, baliabiderik gabe geratzen diren pertsonengatik. Sentitzen dugu, halaber, baliabideak zaintzen dituzten langile eta boluntarioengatik, beren onena ematen baitute eta beren lana ilunpean geratzen baita. Eta, esan genezake, sentitzen dugula erakundeek eskaintzen duten ezintasun irudiagatik ere. Gainera, egoera honetan, albiste positiboak behar ditugu, herritarrei beharrak asetzen direla erakutsi behar diegu. Eta, tamalez, islatzen ari garen bezala, hau oso modu partzialean bakarrik egiten da.

12 egun daramatzagu Alarma estatuan eta **dozenaka pertsona hartzeko baliabideak falta dira**. Larriagoa da poliziak, kalean egoteko debekuari jarraituz, dauden lekuetatik kanporatzen dituela, baita lo egiteko babes moduan erabiltzen dituzten tokietatik ere. Larrialdi-egoera batean premiaz jokatzeko modua hori al da? Horrela jokatzeko al dugu hondamendiren batek dozenaka pertsona larrialdiko bizitokietan hartzera behartzen dituenen? Ez al dute etxerik gabeko pertsonak berdin tratatuak izateko eskubiderik?

Dagoeneko bi asteko konfinamendura hurbiltzera ari gabela, **ez dago justifikatuta baliabide hauek horrenbeste atzeratzea**. Erakundeen buru direnek, erakunde hauek herritarren aurrean zilegitasuna areagotzeko erantzukizuna dute. Eta horretarako gakoetako bat eraginkorrak direla frogatzea da. Une honetan haien jardunean ez dugu horrelakorik ikusten. Are gehiago hemengo eta hango arduradunei behin eta berriz horrelakoak entzuten dizkiegunean: "Ez dugu inor atzean utziko". Izan ere, instalazioak badaude: oraindik erabiltzen ez diren aterpetxeak, hiri osoan zehar banatutako ostatu txikiak, kostua ordaintzearekin nahikoa luketenak eta, aldi berean, jabeei diru-sarrerak ekarriko lizkieketenak ...

Beraz, hemen jarraitzen dugu, lehenengo egunean aldarrikatu genuen gauza bera aldarrikatuz, inor kalean ez uzteko baliabideak gaitzea. Masifikaziora jotzen ez duten baliabideak. Hasiera batean justifikatuta egon badaiteke ere, lehen pauso gisa, masifikatu gabeko lekuekin ordeztu behar dira, osasun-gomendioak jarraitzeko, intimitate minimo bat izateko eta bere kargura dauden langileen eta boluntarioen lana errazteko.

ELIKAGAIAK. Lehengo lepotik burua. Udalaren inplikazioari dagokionez, ez da soilik atzo adierazi genuenari buruz aurrerapenik ez dela egin, baizik eta **beharrak areagotzen ari direla**. Logikoa da. Esaten genuen familia asko eta askok, konfinamendua dekretatzean ahaztuta geratu zirenak, jada nahiko eskasak zituzten diru-sarrerak galdu dituzte, zituzten lanak galtzean. Urritasun honek, familia osoak goseak egotea eragiten du. Atzo, hiri honetako ikastetxe bat gurekin harremanetan jarri zen, zailtasunak baitzituen egoera horretan zeuden



11. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

13 familiari laguntzen jarraitzeko. Oraingo honetan, gure hirian denbora daramaten eta seme-alabak eskolatuta dituzten familia etorkinak. Udaletxera jo zuten, nola ez, baina hor jarraitzen dute, itxaron zerrendan. Gauzak horrela, **Harrera Sareak ere elikagaiak eman lagunduko die**, gosea pasa ez dezaten.

Komunikazioa. Elkarrizketa TeleDonostian. Hordago-El salto harremanetan jarri da.

10. buletina sarean zabaldu da eta hedabideei helarazi zaia

BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK

Atzo, berriro ere, **Ertzaintzak elikagaiak eman zizkigun**, beharra zuen jendearen artean banatzeko. Beraiei zerbitzatzen dieten janetatik datozen elikagaiak dira eta helmuga hori izatea erabaki dute.

Gainera, egun hauetan itxita dagoen **Elikagaien Bankuak, elikagaien premia larrian dauden egoerei soilik erantzutea erabaki du**, eta **gure egoerak behar hori betetzen duela** baloratu du. Honek beste hornikuntza-bide bat izateko aukera emango digu, baina mugatua, biltegian bi pertsona baino ez baitituzte, eta horrek asko mugatzen baitu eskaerak prestatzeko maiztasuna. Gaur, **auzoetan elikagaiak banatzeko sarea** martxan jarriko da eta orain, sare hau mantentzeko eta indartzeko gai izan behar dugu. Modu zentralizatuan egingo ditugun banaketa batzuekin konbinatuko dugu.

Ekarpen ekonomiko solidarioari dagokionez, bederatzi egunetan 125 pertsonen egindako ekarpenak 7.187 € izan dira guztira. Atzo, erosketarik indartsuena higienarako 50 kit izan ziren. Elikagaien erosketak txikiak izaten jarraitzen dute lortzen ari garen janari ekarpenei esker. Hala ere, sortzen ari diren beharrak ikusita, udala azkar mugitzen ez bada, gastu handia egin beharko dugun datozen egunetan.

Ostalaritza laguntzaren arloan, Gandarias eta Pandoraren eguneroko ekarpenak jarraitzen du.

Mugikorrek behar ditugu oraindik

Donostiako Hiritarron Harrera Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

Kontaktua: redacogidaciudadana@gmail.com 675 71 53 15

Ekarpenak: cc ES44 2095 5013 70 9119577666

ZABAL EZAZU, helarazi zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.